

PREKARIETATEA HILTZAILEA LAN ISTRIPU GEHIAGORIK EZ!

EUSKAL GEHIENGO SINDIKALAK ATZO AP8an LAN ISTRIPUAN HILDAKO GARRAIOLARIAREN HERIOTZA SALATZEN DU

Lehenik eta behin gure doluminak eta elkartasuna adierazi nahi dizkiegu atzo AP8an asfaltatze lanetan ari zela lan istripuan hil zen garraiolariaren senide eta lagunei.

Beste sektore askotan gertatzen den moduan, garraioan ere lan baldintzak gero eta prekarioagoak dira. Baina ez hori bakarrik, bizi dugun alarma egoeran baldintza hoiek prekariedade areagotzen dute. Azpimaragarria da euskal garraio sektorea osatzen duten garraiolari asko autonomoak direla, eta horrek kateko azken muturrean bilakatzen ditu. Gaur egun eta urteetan zehar administrazioen utzikeriak eragindako egoera dela eta, gidari nahiz garraiolarien lan baldintzak ez dira hobetu.

Garraiolarien lan istripuak ez dira maiz estatistika ofizialetan kontutan edukitzen. Batzuetan, errepide istripuzak jotzen dira, zenbakiak apaintzeko. Besteetan, “heriotz natural” delakoen zifren barruan sartzen ere saiatu ohi dira, estres egoerak, besteak beste, alde batera nahita utzita.

Administrazioek beste alde batera begiratzen dute, ez dute benetako egoeraren arduradun egin nahi baina argi geratzen da, behin eta berriz, ekonomia, produkzioa, langileen osasunaren gainetik jartzen dituztela. Benetan eraikuntza lehen beharra da momentu hauetan? Langile hoiek guztiak ez lirateke etxean egon behar beraien bizitza arriskutik urruntzeko? Argi daukagu errepideetako merkantzien garraioak urte luzez pairatzen daraman prekariedade eta desregulazio basatia agerian daudela eta gaur bizi dugun egoerak onartu ezinezko egoera hori areagotu besterik ez duela egin.

2020. urtean 20 dira jada lan istripuan hildako langileak. Baina ez hori bakarrik, bi langilek oraindik zabor azpian desagerturik jarraitzen dute. Horregatik, gehiengo sindikala osatzen dugun ELA, LAB, ESK, STEILAS, EHNE eta HIRU sindikatuetatik Eusko Jaurlaritzari neurriak har ditzan exijitzen diogu, prekariedadeak hil egiten duelako.

PREKARIETATEA HILTZAILEA LAN ISTRIPU GEHIAGORIK EZ!

LA MAYORÍA SINDICAL VASCA DENUNCIA LA MUERTE EN ACCIDENTE LABORAL DE UN TRANSPORTISTA EN LA AP-8

En primer lugar queremos mostrar nuestra solidaridad con la familia y amigos del transportista fallecido en accidente laboral ayer en la AP-8 mientras realizaba trabajos de asfaltado.

Tal y como sucede en muchos sectores, las condiciones laborales son cada vez más precarias también en el transporte. Pero no sólo eso, el estado de alarma en el que nos encontramos no hace más que precarizar aún más esas condiciones. Cabe destacar que muchos de los transportistas que componen la red de transporte vasca son autónomos. Eso les convierte en el último eslabón de la cadena. La dejadez con la que la administración ha tratado durante años al sector ha hecho que la situación de conductores y transportistas no haya mejorado ni un ápice.

Los accidentes laborales que sufren los/as transportistas no se contabilizan muchas veces en las estadísticas oficiales, se ocultan como accidentes de tráfico. Además, en muchas ocasiones, las administraciones tienden a no tomar en consideración las “muertes naturales” como accidentes laborales, olvidando por completo los efectos que, por ejemplo, el estrés puede acarrear.

Las administraciones miran hacia otro lado, no se quieren hacer cargo de la situación. Priorizan la economía, la productividad, en pos de la salud de los trabajadores y trabajadoras. ¿Es la construcción de primera necesidad en este momento? ¿No deberían estar todos esos trabajadores y trabajadoras en casa cuidando su vida? Tenemos claro que la precariedad y desregulación que el sector del transporte de mercancías lleva padeciendo es evidente y que la situación que padecemos en la actualidad no hace más que agravarlo.

En 2020 ya han fallecido 20 trabajadores. Pero no sólo eso, dos trabajadores siguen sepultados bajo la basura. Por ello, desde la mayoría sindical que conformamos ELA, LAB, ESK, STEILAS, EHNE e HIRU exigimos al Gobierno Vasco que tome medidas: la precariedad mata.